



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

**ADIERAZPEN INSTITUZIONALA HAITIKO
HERRIARI ELKARTASUNA ADIERAZTEKO**

Gaur, 2010eko otsailak 4, Eusko Legebiltzarreko osoko bilkurak Haitiko Errepublikako biztanle eta agintariei bere doluminik handiena helarazi nahi die pasa den urtarrilaren 13ko lurrikararen ondorioz galdutako giza biziengatik, bai eta horren kausaz izandako ondorio larriengatik ere.

Hondamendi natural honek Ameriketako herrialderik txiroenetako bat suntsitu egin du, herrialde osoan zehar heriotza, etsipena eta mina gogorki barreiatu dituen giza hondamendi itzela sortuz.

Nazioarteko komunitateak bere elkartasuna, laguntza eta elkarlana adierazi dizkie Haitiko gobernuari eta leku horretara joandako milaka boluntarioei. Orain, bada ordua laguntza modu eraginkorrean heltzeko bere konpromisoa erakusteko, horrela premiazko larritasunezko arreta eman ahal izateko eta lehendik ere milioika haitiarrek bizi zuten pobrezia- eta ahultasun-egoera epe ertain eta luzera gainditzea ahalbidetzen duen garapen bat sustatzeko.

Hori dela eta, Eusko Legebiltzarrak:

1. Bere dolumina eta atsekabe handia agertzen ditu Haitin izandako lurrikara suntsitzaileak eragindako milaka bizien galeragatik eta sortutako txikiziotatik, eta elkartasuna adierazten die bizirik atera direnei..
2. Euskal herritarrei izandako elkartasun zintzo eta eskuzabala eskertu egiten die. Izan ere, herritarrek hainbat bidetatik laguntza eman dute, Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakunde eta Nazioarteko Agentzia Humanitarioen proiektuak eta ekimenak babesteko asmoz..
3. Eusko Jaurlaritzari eta gainontzeko euskal erakundeek sostengua eta babesa ematen die balio erantsia duten ekintzak burutzeko, Nazio Batuen Erakundeak koordinatutako nazioarteko misioaren larrialdi-fasean giza baliabide eta ekipamenduarekin parte hartuz.

**DECLARACIÓN INSTITUCIONAL EN
SOLIDARIDAD CON EL PUEBLO DE HAITÍ**

Hoy 4 de Febrero de 2010, el pleno del Parlamento Vasco, quiere trasladar a la población y autoridades de la República de Haití, la más sentida condolencia por las pérdidas de vidas humanas como consecuencia del terremoto ocurrido el pasado 13 de Enero, así como por las graves consecuencias devenidas como resultado del mismo.

Esta catástrofe natural ha arrasado uno de los países más pobres del continente americano, provocando una tragedia humana de terrible magnitud que ha extendido con extrema dureza la muerte, la desesperación y el dolor por todo el país.

La comunidad internacional ha mostrado su solidaridad, apoyo y colaboración con el gobierno haitiano y los miles de voluntarios desplazados a la zona, es ahora el momento de demostrar también su compromiso para que la ayuda llegue de manera eficaz y posibilite la atención urgente de emergencia y para favorecer un desarrollo que permita a medio y largo plazo superar la situación de pobreza y vulnerabilidad en la que ya vivían millones de haitianos

Es por esto que el Parlamento Vasco:

1. Pone de manifiesto su dolor y profunda consternación por la pérdida de miles de vidas y la destrucción ocasionada por el devastador terremoto registrado en Haití, así como su solidaridad con los supervivientes.
2. Agradece a la ciudadanía vasca su solidaridad generosa y sincera, colaborando de alguna de las múltiples formulas existentes, con la intención de apoyar proyectos y acciones de las ONGD y las Agencias Humanitarias Internacionales.
3. Respalda y apoya al Gobierno Vasco y demás instituciones vascas en la realización de las acciones con valor añadido, mediante la participación con personal y equipamiento en la fase de emergencia de la misión internacional coordinada por Naciones Unidas.





4. Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lehenetsi ditzala Haitin esku-hartzea, larrialdiari eta berreraikuntzari arreta emateko xedez egiten diren proiektuak babesteko; epe ertain eta luzean, berriz, konpromiso bat eskatzen zaio, oinarritzko beharrianak progresiboki betetzea, osasun-arreta izateko eskubidea edota hezkuntzarako eskubidea sustatzen dituzten ekimenak abian jarriz, herriak bizi duen pobrezia-egoera gainditzen laguntzeko.
5. Eusko Legebiltzarrak José Luis Rodríguez Zapatero Espainiako Gobernuko Presidenteari eskatzen dio barka dezala Haitik Espainiarekin duen kanpo-zorra eta egin ditzala, Europar Batasuneko Presidentea den aldetik, helburu horrekin berarekin, behar diren gestioak Europar Batasuneko kide diren herrialdeetako Gobernuen aurrean, Nazioarteko Diru Funtzaren aurrean eta Munduko Bankuaren aurrean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko otsailaren 4a

4. Solicita al Gobierno Vasco que priorice intervenciones en Haití, para apoyar los diferentes proyectos que persigan atender la emergencia y la reconstrucción; pero también un compromiso a medio y largo plazo con acciones que fomenten el progresivo acceso a las necesidades básicas, el derecho a la atención sanitaria o la educación; para contribuir a superar la situación de pobreza en el país.
5. El Parlamento Vasco insta al Presidente del Gobierno español, José Luis Rodríguez Zapatero, a que proceda a la condonación de la deuda externa contraída por Haití con España, así como a realizar, en su condición de Presidente de la Unión Europea, las gestiones precisas con idéntica finalidad ante los gobiernos de los países miembros de la Unión, el Fondo Monetario Internacional y el Banco Mundial.

Vitoria-Gasteiz, 4 de febrero del 2010

